

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

150 pertsonatik gora ariko dira gaur arratsaldean duintasunez hiltzearen prozesuari buruz

Saioa streaming bidez jarraitu ahal izango da, eta bertan izango da Ana Olo kontseilaria

Asteartea, 2018.eko abenduak 11

150 pertsonatik gora izango dira gaur arratsaldeko 17:00etan Nafarroako Parlamentuko atarian egingo den saioan, bizitzako azken uneetako duintasunari buruzko eztabaida publikoan. Ana Olo Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilariak irekiko du jardunaldia, eta Internet bidez jarraitu ahalko da [hemen](#).

Ekimena Herritarren Partaidetza Bultzatzeko Planaren eta Zahartze Aktibo eta Osasuntsuaren Estrategiaren arteko koordinazioaren ondorioz sortu da. Norbanakoez gain, ekimenean parte hartzeko izena eman dute administrazio, unibertsitate, enpresa-erakunde, sindikatu, komunikabide, herritarren elkarte eta gobernuz kanpoko erakundeetako esparruetako pertsonak.

Iritzi-elkartrukeak heriotza-prozesuaren duintasunaren esanahian eta gogoeta pertsonalean sakontzea du helburu, heriotza horri buruz ezer erabakitzen dugun hausnartzeko. Herritarrek prozesu horretan dauzkaten behar eta galderak ere izango dira eztabaidagai, eta bai Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko politika publikoetatik landu behar diren neurriak.

Antolakuntzak txosten bat lantzea du aurreikusita eztabaidatik aterako diren ondorioekin; txostena, ondoren, Zahartze Aktibo eta Osasuntsurako Estrategiaren arduradunei eta Nafarroako Gobernuako sailei helaraziko zaie.

Ainhoa Aznárez Parlamentuko lehendakariaren agurraren ondoren, Ana Olo kontseilariak irekiko du jardunaldia. Ana Aliende soziologiako doktoreak moderatuko du eztabaida.



[Programan](#) eztabaidaren irekiera hirukoitz bat egongo da. Lehenengoa, Ana Otazu abokatu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko zuzenbide publikoko saileko irakasle elkartuarena, marko normatiboa azaltzeko. Bigarrena, Xabier Azcoitiarena; teologian lizentziatua, doluaren arloko masterra eta zainketa aringarrien graduondoa landutakoa, zeinak galdera hau izango duen oinarri: “Zer egin dezakegu behar eta eskaera desberdinak artatzeko?” Hirugarrena, eta azkena, Albert Planes familiako mediku eta CAMFIC etika-taldeko kidearena. “Bizitzen lagundu, hiltzen lagundu. Zer egin dezakegu sendatu ezin denean?” galderatik abiatuta egingo du hitz-hartzea.

Hiru hitzaldien ondoren eztabaida horizontala irekiko da parte-hartzaile guztien artean. Jardunaldiaren itxiera 19:30etarako daغو aurreikusita.